Kaixo, neska-mutilok,
Leo naiz eta hauek
nire lagunak:
Eric, Leila, Gustavo,
Oskar eta Karla.
Noa nire ahizpa da,
eta Gandhi txakurra.

Aitak bidalitako
e-mezua
igorri dizuegu. Irakurri
arretaz
eta aitzina!.

021105: Leo eta labirintoaren misterioa

Erantzun | Denei erantzun | Sarrera-erretilua

Nork: Oskar
Data: 2006ko otsailaren 2a
Nori: Leo; Noa; Eric; Leila; Gustavo
Gaia: Labirintoko kazetariak

Kaixo, seme: Pentsatu nahi dut zure ondoan dituzula Noa eta beste lagun guztiak, baietz?, pozten naiz, zeren proposamen bat baitut zuentzat.

Duela astebete Kaxmir pakistandarrean nauzue, 2005eko urrian hainbat pertsona kaltetu zituen lurrikara aztertzen. Zoritxarrez, luze joko du etxeak berreraiki arte, ura eta argia ekarri eta jendea modu normalean bizi ahal dadin. Pertsona hauen bizi-baldintzak oso txarrak dira, baina ahaleginak egiten dituzte aurrera egin eta tragedia gainditzeko.

Eta gu beti kexuka, ez da? Beno, bada, joko bat proposatu nahi dizuet. Pentsatu dut interesgarria litzatekeela zuek une batez kazetari bihurtu eta zuen erara aztertzen hastea munduko hainbat tokitan gertatzen dena. Hori burutu ahal izateko, hainbat tresna jarriko dizkizuet eskura, bilaketa errazagoa izan dakizuen.

Nortasun-agiri batzuk bidali dizkizuet, non zuen behaketak idatziko dituzuen; mapa bat informazioa eta arrastoak lortzeko, eta ohar batzuk jokoan hasteko.

A, taldeka lan egitea komeni zaizue, lana handi samarra baita!
Zorte on eta aurrera!
Besarkada eta musu bat amarentzat. Laster arte.

Oskar

PD: Emaitzak bidali, ahaztu gabe, ados?
Leo, igurtzi sorbalda Gandhi-ri nire izenean, atsegina du-eta!

Geological Survey Company
Tel. +34 982 753 22 31
Mobile +34 621 936 700

Intermon Oxfam

Leo eta labirintoaren misterioa

Kazetari-agiori kolektiboa

Entitatea

Ginkana egin deneko data

Parte-hartzaileen kopurua

Ikertu ditugun tokiak eta lortutako emaitzak:

ZERO POBREZIA

Ikertzen ari zareten mundu honetan ia 60 milioi analfabeto daude; hau da, ez irakurtzen, ez idazten ez dakitenak.

Ikertzen ari zareten mundu honetan 4,6 milioi gizajendek ihesa du, eta haietatik ia laurdena 15/19 urte bitarteko gazteak dira. Medikuek artatuak izateko eta botikak topatzeko dituzten zailtasunek nabarmen gutxitzen diete bizi-baldintza duinetan bizi eta itxaropena edukitzeko aukera.

Ikertzen ari zareten mundu honetan eskola askok ez dute ur edangarririk ez eta zerbitzuak eskaintzeko instalakuntza egokirik. Eta hori gazteen osasunerako arriskutsua izateaz gain, oztopo da haien hezkuntzarako.

Ikertzen ari zareten mundu honetan populazioaren nutrizio-tasa zerbait hazi da, hezkuntza, osasun-zerbitzu eta ur edangarria eskuratzeko aukerei esker. Baina desnutrizio-tasa hori oraindik handiegia da, eta pobrezia erauzten saiatzeko premia dago.

Ikertzen ari zareten mundu honetan zuek bezalako hainbat neska-mutikok lan egin behar izaten dute gurasoei laguntza emateko, baina lan egiten duten bitartean ezin dute eskolara joan.



Ikertzen ari zareten mundu honetan Um Jummah-ren bizitza ezagutzen dugu. Hamaika urte baino ez ditu, baina 10 km egin behar izaten ditu egunero lastoa bildu eta etxekoek azokan sal dezaten. Inoiz ez da eskolan egon. Gure laguna bizi den tokian nesken populazioaren %1 bakarrik joan ohi da eskolara.

Ikertzen ari zareten mundu honetan milioika ume gaixotu edo hil egiten dira 5 urte bete baino lehen, gaixotasunengatik ez ezik, botikak eta osasun-zerbitzua izatea ez dagoelako euren esku.

Ikertzen ari zareten mundu honetan, Fatimak, zuek bezalako neskato batek, lau ordu behar izaten ditu ibaira iritsi eta ura ekarri ahal izateko. Baina ura kutsatuta egon daiteke eta gaixotasun larriak eragin.

Ikertzen ari zareten mundu honetan maiz ikusi ohi ditugu giza ilara ikaragarriak, giza laguntza banatzen duten erakundeek hamabostean behin ematen duten janaria (50 kilo arroz eta 8 litro olio) jaso ahal izateko, zain.

Ikertzen ari zareten mundu hau oso aberatsa da baliabide naturaletan eta abere-aniztasunean. Baina bada beste errealitate bat ere, non populazioaren %50ek egunean 1€ baino gutxiagorekin biziraun behar duen.

Ikertzen ari zareten mundu honetan ia neska-mutiko guztiak joan ohi dira eskolara eta pila bat gauza ikasten dituzte, baina batzuei pixka bat gehiago kostatzen zaie, urrutitik iritsi direlako, eta ez dutelako ez gure hizkuntzarik ez ohiturarik ezagutzen...

Ikertzen ari zareten mundu honetan ama ijito batek ez zekien bere seme-alabek txertoa hartu behar zutela haur-gaixotasun hilgarriz ez kutsatzeko. Batzuetan ez dute informazio nahikorik, edo ez daukate erraztasunik osasun-zentrora joateko.

Ikertzen ari zareten mundu honetan hainbat jendek alde egin behar izan du bere herrialdetik, gerratik ihesi edo lan-eskasiagatik. Oso jende txiroa da, eta hiri handietako bazterrean bizi dira, txabolatan eta urik gabe.



Ikertzen ari zareten mundu honetan itxuraz ez da posible inor goseak egotea, baina hainbat erakundek janaria banatzen du egunero arrazoi bat dela edo bestea dela zer janik ez dutenen artean.

Ikertzen ari zareten mundu honetan populazioaren %80ek baino gehiagok ez du aukerarik lan eta soldata duina eskuratzeko. Hartara, lanik ez eta kalean bizi behar izaten duten hainbaten berri ematen digute egunero hedabideek.

Ikertzen ari zareten mundu honetan neska-mutiko askok eskola utzi behar izaten dute, gurasoei lagundu behar dietelako edo anaia-arreba txikiak zaintzeko.

Ikertzen ari zareten mundu honetan asko jaitsi da haur hildakoen tasa azken urteotan, baina oraindik milaka neska-mutiko gaixotzen dira: txertorik ez dutelako, desnutrizioz edo osasun-zentrora joaterik ez dutelako.



Ikertzen ari zareten mundu honetan herri askorentzat ibaia zen ur-hornikuntza bakarra, eta, ondorioz, hainbat gaixotasun ur zikin haien bidez sartzen ziren, eta hainbat neska-mutiko eta familia oso kutsatzen ziren.

Ikertzen ari zareten mundu honetan 0 urtetik 5 urte bitarteko milioika neska-mutikok egokia dena baino pisu gutxiago dute, osasuntsu eta sendo hazteko beharrezkoak diren elikagaiak ez hartzeagatik.

Ikertzen ari zareten mundu honetan milioika neska-mutikoen bizitzan ez dago ez libururik ez jolasik, harriak zulatzen ematen baitute euren denbora, soldata bat irabazi eta, familiari lagunduz, biziraun ahal izateko.

Ikertzen ari zareten mundu honetan hainbat neska-mutiko ikasteko gogo biziz joaten dira eskolara, baina sarri ez dute materialik idazteko, koloreztatzeko, ebakitzeko, etab.

Ikertzen ari zareten mundu honetan milaka neska-mutiko gaixotu eta hil egiten dira 5 urte bete aitzin, ur kutsatua edateagatik, desnutrizioz, txertoak eta medikuek artatuak izatea ezin lorturik.

Ikertzen ari zareten mundu honetan zuek bezalako hainbat eta hainbat neska-mutikok ikasi dute oso garrantzitsua dela komunera joan ondoren eskuak garbitzea, zizareak ez harrapatzeko. Askok jasan dute gaixotasun hori eta, beraz, arazoak izan dituzte behar beste hazteko.

Ikertzen ari zareten mundu honetan hondartza zoragarriak daude, ur gardenezkoak eta area zurizkoak. Baina bada besterik ere, hots, populazioaren %33k desnutrizio kronikoak jota dago bizitza osasungarria izan ahal izateko behar diren elikagaiak ezin hartzeagatik.

Ikertzen ari zareten mundu honetan milaka familiak egunean 1€ baino gutxiagorekin bizi beharra dauka. Jakina, tenore horretan ezinezkoa zaie elikatze hutsa.



Hezkuntza
PROBA

"Ba al zenekiten munduan 6.800 hizkuntza mintzatzen direla, 220 herrialdetan zehar, eta Asian kokatzen direla haietako 2.000? Proba hau gainditu nahi baduzue, esaldien erdiak dagozkien herrialdeekin zuzen lotu beharko dituzue. 30 segundo dauzkazue, proba burutzeko"

OSASUNA

PROBA

“Oso birus arriskutsu eta kutsakorrak jota zaudete, eta hari aurre egiteko modu bakarra tenotep izeneko txertoa eskuratzea da. Txerto hori lortzeko, 15 metroko ilara osatu beharko duzue denon artean, soinean daramatzazuen jantziak bata besteari lotuz”

LANA
PROBA

“Enpresa bat sortu berri duzue, Rainbow argitaletxea, merkataritza justuaren printzipiotan oinarritua. Oso pozik zaudete lehen liburu-sorta kaleratu duzuelako, ume itsuentzat. Orain liburutegietara helarazi behar da. Garraio publikoa berezia hartuko duzue.Taldeak ilara bat osatuko du, eta lehenengoak liburu-sorta bat eramango du eskuetan. Ilarako azkenak izan ezik, begiak estalita eramango dituzte denek. Azkena da gidaria, eta aldez aurretik seinalaturiko bidetik eramango du taldea liburutegiraino. Taldea gidariaren oharren arabera mugituko da, beti isilik”

ELIKADURA
PROBA

“Dakizuenez, ura ezinbestekoa da bizi ahal izateko, baina, zoritxarrez, ondasun eskasa da planetan. Planetako uraren %3 bakarrik da edangarria. Beraz, ardura handiz jokatu beharra dago, ez alferrik galduz. Erakuts ezazue zuen trebetasuna ur guztia edalontzi batetik bestera lastotxo baten bidez garraiatuz, tantarik bota gabe. Minutu 1 daukazue, proba gainditzeko”

HIGIENEA

PROBA

“Leok eta bere arrebak etxera gonbidatu dituzte beren lagunak. Bazkaldu ondoren, atseden hartzen ari dira. Behatu haien jarduerak, eta adierazi zeintzuk ez diren erabat higienikoak. Minutu bat daukazue proba gainditzeko”

Adierazi jarduera desegokiak

Maroko	لا نريد الفقر	
Argentina	Pobreza cero	
Brasil	Pobreza zero	
Burkina Faso	Pauvreté zero	
Herbehereak	Geen armoede	
Fidgi uharteak	Zero poverty	
India	Garribi suño	
Txina	離開貧窮	